Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

HERRIZAINGO SAILA

5482

EBAZPENA, 2009ko irailaren 28koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena. Honen bidez, Herrizaingo Sailean, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian hutsik dagoen lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdi publikoa iragartzen da.

«Goi-kargudunaren idazkari» lanpostu bat hutsik dagoenez, sail honek lanpostu hori (ebazpen honetako eranskinean adierazitakoa) izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa egitea erabaki du, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c artikuluan xedatutakoari jarraituz (1989ko uztailaren 28ko EHAA) eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzak aldeko txostena eman ondoren. Hona hemen

OINARRIAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen eranskinean aipatutako baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek eskatu ahalko dute ebazpen honen bitartez bete nahi den lanpostua.

Bigarrena.– Izangaiek eskaera Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Zuzendaritzara bidaliko dute, eta, bertan, datu pertsonalak eta betetzen ari diren lanpostua adierazi beharko dituzte. Bestalde, eskaera aurkezteko 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.– Izangaiek eskaerarekin batera curriculum vitae igorri beharko dute, eta bertan honako hauek adieraziko dira.

a) Ikasketa-tituluak.

b) Bete izan dituzten lanpostuak: Herri Administrazioan zein, hala bada, enpresa pribatuetan.

c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, hizkuntzak, bai eta hautagaiak egokitzat jotzen dituen gainerako merezimenduak ere.

Eskabidearekin batera, eskaturiko baldintzak eta adierazitako merezimenduak egiaztatzeko beharrezko agiriak aurkeztu beharko dituzte hautagaiek. Halaber, egoki iruditzen zaizkien argitalpen, txosten edo bestelako agiriak erantsi ditzakete.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

5482

RESOLUCIÓN de 28 de septiembre de 2009, del Director de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en el Departamento de Interior, Academia de Policía del País Vasco.

Estando vacante un puesto de «Secretario/a Alto Cargo» de este Departamento y conforme a lo dispuesto en el artículo 46.2.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca (BOPV de 28 de julio de 1989) y previo informe favorable de la Dirección de Función Pública, este Departamento acuerda anunciar la provisión, por el procedimiento de libre designación, del puesto de trabajo que se relaciona en el anexo de la presente Resolución, con arreglo a las siguientes

BASES

Primera.– El puesto de trabajo que se convoca a través de la presente Resolución podrá ser solicitado por el personal funcionario de carrera que reúna los requisitos exigidos para el desempeño del mismo, establecidos en el anexo de la presente Resolución.

Segunda.– Los interesados/as dirigirán sus solicitudes, en las que harán constar sus datos personales y destino actual, a la Dirección de la Academia de Policía del País Vasco, dentro del plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercera.– Los aspirantes deberán acompañar a su escrito un currículum vitae en el que harán constar:

a) Títulos académicos.

b) Puestos de trabajo desempeñados, tanto en la Administración Pública como, en su caso, en la empresa privada.

c) Estudios y cursos realizados, conocimientos de idiomas y cuantos otros méritos estimen los aspirantes oportuno manifestar.

A la citada solicitud deberán los aspirantes adjuntar, además, la documentación justificativa de los requisitos exigidos y los méritos alegados. Así mismo, podrán los aspirantes acompañar, en todo caso, cuantas publicaciones, informes o cualesquiera otros documentos estimen oportunos.

Laugarrena.– Deialdi hau Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren ebazpen baten bitartez erabakiko da eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Argitaratzeko epea, gehienez, hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari berari, hilabeteko epean, agindua argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Arkaute, 2009ko irailaren 28a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
JUAN DE DIOS URIARTE ARCINIEGA.

Cuarta.– La resolución de la presente convocatoria se llevará a cabo mediante Resolución del Director de la Academia de Policía del País Vasco, y se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente al de la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrá interponerse, recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que lo hubiere dictado en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Arkaute, a 28 de septiembre de 2009.

El Director de la Academia de Policía del País Vasco,
JUAN DE DIOS URIARTE ARCINIEGA.

ERANSKINA

Deialdiko lanpostua:

– Izena: goi-kargudunaren idazkaria (520010 kodea, 112. dotazioa).

– Lantokia: Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia.

– Herria: Arkaute.

– Kidegoa: C1 edo D1.

– Lanpostuaren osagarriaren maila: 18.

– Berariazko osagarria: VI-A.

– Hizkuntza-eskakizuna: 2.

– Derrigortasun-data: datarik gabe.

Lanpostua betetzeko baldintzak:

– C1 edo D1 kidegokoa izatea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko karrerako funtzionario izatea administrarien edo administrari-laguntzaileen kidegoan edo jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko eszedentzian egotea.

– Era berean, lehen aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioak ere aurkeztu ahal izango dira, baldin eta derrigorrezko eszedentzian, beste administrazio publikoren baten zerbitzura, suspentsio-egoeran edo borondatezko eszedentzian badaude. Horretarako, egoera horietarako ezarritako epea beteta eduki behar dute, eta jarduneko zerbitzura itzuli beharko dute.

– Urtebeteko edo biko esperientzia edukitzea, lanpostua atxikita dagoen administrarien kidegoari edo administrari laguntzaileen kidegoari dagozkien lanetan.

ANEXO

Puesto de trabajo convocado:

– Denominación: Secretario/a Alto Cargo (código 520010, dotación 112).

– Localización: Academia de Policía del País Vasco.

– Localidad de destino: Arkaute.

– Cuerpo: C1 o D1.

– Nivel de complemento de destino: 18.

– Complemento específico: VI-A.

– Perfil lingüístico: 2.

– Fecha preceptividad: sin fecha.

Requisitos para su provisión:

– Pertenecer a los Cuerpos C1 o D1.

– Hallarse en situación de servicio activo, servicios especiales o excedencia por cuidado de hijos, como funcionario de carrera del Cuerpo Administrativo o Auxiliar Administrativo de la Comunidad Autónoma.

– Asimismo, podrán concurrir, reingresando al servicio activo a través de este procedimiento, los funcionarios de carrera pertenecientes a los cuerpos antes citados, que se encuentran en situación de excedencia forzosa, en servicios en otras Administraciones Públicas y los suspensos y excedentes voluntarios, siempre que hubieran cumplido el tiempo de permanencia establecido para tales situaciones.

– 1 o 2 años de experiencia en el desempeño de tareas propias del Cuerpo Administrativo o Cuerpo Auxiliar Administrativo, respectivamente, a los que se encuentra adscrito el puesto de trabajo.